

# Abarrak

MIKEL ASURMENDI

## Mantis erlijioso

MUNDUKO FUTBOL KOPA iragan berri, mundua oihana begitandu zait. Adaburuz adaburu dabilkit irudimena. Horratx Hegoafrika-ko zuhaitzek laga dizkidaten abarrak:



✓ Hegoafrikako selekzioak irabaztea desio nuen. Hark irabazi ezinean, Boli Kostakoak. Azken unean Ghanak. Afrikarrek ezin irabazirik, nire gogoan jan nuen.

✓ Tigre ehizan nola halaxe begitanduzen zaizkit Afrikako selekzioetako jokalaria baloiaren atzean. Lantza eskuetan, aske. Basak. Estrategia eta taktiketarik libre –aurkariak baino libreago– orainokoa.

✓ Europatik (irletatik) Afrikara aldatu zen futbola behiala, jokia basa eta zuzena izaki. Europara heldu diren afrikar jokalaria, tamalez, bezatzen ari dira –bezatu dituzte– ezari-ezarian eta emeki.

✓ Herbeheretarren eta espainiarren arteko finala ikusten nuela, futbol sistema eta demokrazia sistema parekoak begitandu zitzaizkidan: legeak egon badaude bietan, kontua –arazoa– legeak aplikatzeko moduan –eta orduan– datza.

✓ Futbola eta demokrazia sistemak ez dira parekoak edonola ere. Egokiak izanen badira, lehenak joko bertikala landu behar du, bigarrenak, aldiz, horizontala. Nire gustuko, bistan da.

✓ Demokrazian joko bertikala nagusia denez, indartsuen joko menperatzailea gailendu izaten da. Futboleak, aldiz, jokia aske izanen bada –irletako jatorrira itzuliz– jokia bertikala izan behar du.

✓ Mendebaldeko demokrazia nola, halatsu futbola ere. Boteresuen interesen arabera: bezatua.

✓ Futbola nola herriak hala. Edo halatsu. Espainiarrek alemaniarren menpean hartu zituztenean, Hernaniko erdialdean –ez auzoetan– etxafuegoak bota omen zituzten. Hernanin diot, ez Irunen. Espainiarrek herbeheretarren menpean hartu ondoren, Hendaian ere suziriak jaurti zituzten. Aspaldian sumatu genuena bete zen: Espainia Hendaian ere badago.

✓ Mendeak dira herbeheretarren –Hegoafrika geroago kolonizatu zuten berak– espainiarren menpekotasunetik askatu zirela, eta urteak –50. urte datorren agorrilean– joan dira Boli Kosta frantziarren tiraniatik askatu zela ere, baita Ghana Britainia Handikoaren zapalkuntzatik ere. Azken hauek Europako demokraziaren joko bertikalaren menpe segitzen dute haatik.

✓ Euskaldunok ere espainiarren eta frantziarren demokraziaren joko bertikalaren menpe gaude. Irletako futbol-joko bertikala –zuzen eta aske– egiten ahazten ari zaigu. Asimilatu gaituzte kasik!

✓ Adaburuz adaburu eta abarretik abarrera nabilela, katagorri izan gogoz, demokraziak eta futbolak –demokrazia arra da, futbola emea– koktel amnesiko paregabea osatzen dutela begitandu zait. Kopatik edan eta klik! Gozagarria. Mantis erlijioso bihurtzen gaitu. Txortan egon ahala baina, burua jaten digu. ■

# Atxaspi Hotela



*ametsetan bezala.*

Bittiria 24

Lesaka (Nafarroa)

T 948 637 536

hotela@atxaspi.com

www.atxaspi.com